BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5370

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 18koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Bizkaiko Errigoitiko udalerrian, Garaunza SLk sustatuta, «Malluki industria-eremuaren urbanizazio-proiektuak» ingurumenaren gainean duen eraginaren adierazpena egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, I. eranskineko B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumenaren gaineko eragina banaka ebaluatzeko jardunbide baten mende egongo dira, eta jardunbide horri amaiera emateko ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio-erabakiaren aurretik.

Errigoiti udalerrian, Garaunza SLk sustatuta, Malluki industria-eremuaren urbanizazio-proiektua onartzeko prozedura hasita, eta ondorengo araudian xedatutakoa aplikatuz: batetik, otsailaren 27ko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorra eta, bestetik, proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzeko den urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua. Beraz, bi arau horiek betez, proiektu horrekin zerikusia duten eta jarraian aipatzen diren izapideak gauzatu dira, besteak beste:

● Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanaren edukia ezartzea. Errigoitiko udalak eskatuta, 2010eko uztailaren 28an, Ingurumen Sailburuordetzak kontsulten izapideari hasiera eman zion, proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Behin Ingurumen Sailburuordetzak 2010eko azaroaren 2an proiektuak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlanaren zabalerari eta xehetasun-mailari buruzko txostena bidali eta gero, izapide hori bukatu egin zen.

● Jendaurreko informazioaren izapidea. Errigoitiko Udalak jendaurrean jarri zituen proiektua eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana (2011ko apirilaren 14ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 73. zk.).

● Dosierra bidaltzea eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen eskatzea. 2011ko ekainaren 22an, Errigoitiko Udalak Ingurumen Sailburuordetzari igorri zion dosierra, proiektuek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzko testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 12.1 artikuluan ezarritakoa betez.

Aipatutako proiektuaren dosierrean ageri diren txostenak eta dokumentazio teknikoa aztertuta, ikusi da ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana zuzena dela, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoari egokitzen zaiola. Ingurumen Sailburuordetza da ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena emateko eskumena duen organoa, xedapen hauen arabera: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, eta, bestetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua. Eta, hortaz, honako hau,

EBATZI DUT:

1.– Errigoitin, Garaunza, SLk sustatuta, Malluki industria-eremuaren urbanizazio-proiektuak ingurumenaren gainean duen eraginari buruzko aldeko adierazpena egitea.

2.– Honako baldintza hauek ezartzea proiektua burutzeko; baldintzok lotesleak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.2 artikuluari jarraiki.

2.A.– Proiektua, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztutako agirietan jasotakoaren arabera eta, berariaz, ebazpen honetan finkatutako zehaztapenen arabera gauzatu beharko da.

2.a.1.– Espediente honetako ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedurak kontuan izan ditu urbanizatze-proiektuarekin batera datozen azpiegituren eraginak. Azpiegitura horiek beharrezkoak dira proiektua garatzeko, eta, beraz, ezin dira proiektutik bereizi. Horrela, bada, saneamendu-sareen, eta ur, gas, telekomunikazio eta argiz hornitzeko sareen trazatuak, bai eta industrialdera sartzeko bideak ere, egokiak diren aztertu da. Xehetasunezko eraikuntza-alderdiak, aldiz, ez dira aztertu; edonola ere, alderdi horiek dagozkion egikaritze-proiektuetan jaso beharko dira.

2.a.2.– Kasuan kasu aplikatu beharrekoa den baimentzeko eta ingurumen-eraginaren ebaluazioa egiteko prozedura espezifikoaren emaitza alde batera utzi gabe, aurreko paragrafoan aipatutako azpiegitura egikaritzeko beharrezko agiri teknikoek honako hauek jaso beharko dituzte: ingurumen-eraginak zuzentzeko eta kontrolatzeko beharrezko neurriak. Edonola ere, pistak eta obra-eremuetara iristeko bideak irekitzeak kaltetutako eremuen ingurumen-lehengoratzea egiteko neurriak jaso beharko dituzte.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat, haren bidez onartu baitzen Proiektuek Ingurumenean duten Eragina Ebaluatzeko Legearen testu bategina.

Proiektuan egingo diren aldaketa jakinak aurreko idatzi-zatian adierazitako garrantzirik ez dutenean, lanak burutzeko falta diren gainerako prozeduretan sortzen direnean, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira, eta aldaketok proiektuko neurri babesle eta zuzentzaileetan, ingurumena zaintzeko programan, aurrekontuan eta baldintza-agirietan sartuko dira.

2.C.– Neurri babesle eta zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak egitasmoaren sustatzaileak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko aurkeztu zituen agirietan jasotakoaren arabera egikarituko dira. Era horretan, neurri hauek hartzeak, batetik, eta kontrolerako esleitutako pertsonalak, bestetik, azterketan ezarritako eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen honetan ezarritako kalitateko helburuak bermatu ahal izango dituzte. Ondorengo idatzi-zatietan adierazitako neurriak gehitu beharko dira.

Neurri hauek guztiak obra kontratatzeko baldintzetan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua izan beharko dute.

2.c.1.– Natur ondarea babesteko neurriak.

Bertako hainbat baso-espezieren araubide bereziari buruzko urriaren 14ko 11/1997 Foru Aginduan xedatutakoa aplikatzearen kaltetan izan gabe, honako neurri hauek aplikatuko dira:

2.c.1.1.– Obrak, bai eta lurzorua erabiltzea eragiten duten eragiketa osagarriak ere, proiektuaren lursailaren barruan egingo dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obretako makinen eta ibilgailuen zirkulazioa aipatutako mugetatik kanpo.

Adierazi den eremutik kanpo ustekabeko eraginik gertatzen bada, zuzentzeko eta leheneratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, ebazpen honetako 2.c.11 idatzi-zatian ezarritako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

2.c.1.2.– Obrarako sarbideak eta kontratistak erabiliko dituen instalazio-guneak, makinak gordetzeko guneak eta obrako materialak eta hondakinak aldi batean pilatzeko guneak barne, ingurumenean ahalik eta kalte gutxiena sortzeko irizpideak kontuan izanda proiektatuko dira.

Kontratistak erabiliko dituen instalazio-guneak egokitu egingo dira, bertan gauzatuko diren jarduera askotarikoen ondorioz ingurumenean sor daitezkeen kalteak ahal dela gutxitzeko.

Obra hasi aurretik xehetasun-kartografia bidez zehatz-mehatz mugatuko dira gune horiek guztiak, eta kontratistak erabiliko dituen guneen ezaugarriak zehaztuko dira. Proposamen horiek obraren zuzendaritzak onartu behar ditu, ebazpen honetako 2.c.11 idatzi-zatian aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

2.c.1.3.– Tokiko bertako zuhaitz-landaredia naturala ebakitzea saihestuko da zuzeneko okupazioa aurrez ikusten ez den eremuetan. Horretarako, obrak hasi baino lehen, zehatz-mehatz mugatu eta balizatuko dira lanak gauzatzeko derrigorrez ebaki behar ez diren bertako zuhaitzak eta zuhaitz-unadak. Babestu beharreko eremu horiek berariaz zehaztu beharko ditu ebazpen honetako 2.c.11 idatzi-zatian ezarritako ingurumen-aholkularitzak.

2.c.1.4.– Butroe ibaia interes bereziko gunea da bisoi europarraren kontserbaziorako, Bizkaiko Lurralde Historikoan espezie hori kudeatzeko planaren arabera (ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua).

Espezie horretako aleei eragin diezaiekeen edozein ekintza gauzatu baino lehen, kontuan izan beharko da honako arau hauetan ezarritakoa: 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duena; 167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda Arautzen duena, eta, batez ere, 118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, Bisoi Europarraren, Mustela lutreola (Linnaeus, 1761), Kudeaketa Plana onesten duena, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik.

Hori dela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak agindutakoari kalterik egin gabe, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean jasotako beste neurri batzuez gain eta, bereziki, «Análisis de las Posibles Afecciones Medioambientales del Proyecto de Polígono Industrial de Malluki (Errigoiti) sobre los Entornos Fluviales en el Caso Concreto del Visón Europeo» («Proyecto de Urbanización del Sector Industrial Malluki, Errigoti (Bizkaia). Estudio de Impacto Ambiental-03 agiriaren 4. eranskina») izeneko agirian garatutakoez gain–, honako neurri hauek ere hartuko dira:

● Malluki errekan jarduketak egin aurretik, aditu batek prospekzioa egingo du eragindako ezponda eta erriberetan, etzaleku edo babesleku posibleak aurkitzeko. Aurkitzen badira, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaio, eta hark aginduko du zein jarduketa egin.

● Espezie horren ugaltze-sasoian eta hazkuntzaren hasieran, alegia, martxoaren 15etik uztailaren 31 bitarteko epean, ez da obra-jarduerarik egingo Malluki errekan eta Butroe ibaian.

● Butroe ibaiaren ibilguaren inguruetan lur-mugimenduak egiten hasi baino lehen, hesi berde edo landarezko hots-oztopo bat eraikiko da, poligonoak Butroe ibaiarekin duen muga osoan zehar. Oztopo horren ezaugarriak ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean zehaztutakoak izango dira, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi eta Naturaguneen Zuzendaritza Nagusiak Errigoitiko Udalari 2010eko ekainaren 22an bidalitako ofizioan zehaztutakoak ere.

● Lur-mugimenduaren fasean, 2.c.11 idatzi-zatian aipatutako ingurumen-aholkularitzako fauna-espezialista batek egon beharko du obra-tokian, aipatutako espeziearen eta haren habitaten gainean eragin kaltegarririk sor ez dadin aplikatu beharreko neurri babesle eta zuzentzaileei buruzko aholkuak emateko obraren zuzendaritzari.

● Butroe ibaiaren gaineko zubia handitzeko obrak hasi baino lehen, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean aurreikusitako neurri zuzentzaileak beteko dira, ur-ibilgura edozein isurketa egitea saihesteko.

2.c.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Aplika daitezkeen prozeduren esparruan uren arloko organo eskudunak egoera honetan ezarriko dituen baldintzez gain, honako neurri babesleak eta zuzentzaileak ere hartu beharko dira:

2.c.2.1.– Obra-makineriarako eta haren mantentze-lanetarako utziko den azalera isolatu egingo da drainatze naturaleko sare batekin. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema izango ditu, olioek eta erregaiek lurzorua eta ura kutsa ez dezaten. Ezin izango da erregairik zamatu, oliorik aldatu eta oro har tailerreko lanik egin adierazitako gunetik kanpo.

2.c.2.2.– Eraikuntza-fasean, minimizatu egingo dira drainatze-sarera isurtzen diren material finak. Horretarako, urak eramateko gailuak eta sedimentuak atxikitzeko sistemak erabiliko dira.

Gailu horien neurriak ezartzean, beharrezko kalkulu hidraulikoak egingo dira, honako hauek bermatzeko: solidoen atxikipen ezin hobea, eta, nolanahi ere, lokalizatutako isurketa, indarrean dagoen araudiaren araberakoa, uraren parametro fisiko-kimikoei dagokienez.

Sistema horien kokalekua eta neurri zehatzak ebazpen honetako 2.c.12 idatzi-zatian aipatzen den lan-programan jasoko dira.

Hormigoizko upelen ikuzketa, betiere, horretarako egokitutako eremuetan egingo da. Ez da inola ere onartuko hormigoiaren ikuzketaren hondarrak ibaiaren ibilgura isurtzea. Hormigoiaren hondakinak ebazpen honen 2.c.6 idatzi-zatian ezartzen diren baldintzen arabera kudeatu beharko dira.

2.c.2.3.– Proiektuak eragindako ur-ibilguak egokitzeko eta bideratzeko lanak, ahal dela, agorraldi-garaian egingo dira, eta programatu eta sinkronizatu egingo dira, ahal den denbora laburrenean egiteko.

2.c.2.4.– Urbanizazio berriko euri– eta hondakin-uren sareen ezaugarri nagusiak 2011ko apirilaren 11n Errigoitiko udalak Ingurumen Sailburuordetzari bidali zion agirian («Modificación

del Proyecto de Urbanización del sector Industrial Malluki») jasotakoak izango dira, baita ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean jasotakoak ere.

Aurreko horren arabera, ur beltzak Malluki errekara isurtzea aurreikusi da, araztegi trinko modularretik pasarazi ondoren. Euri-uren tratamendurako, berriz, uretara isur daitezkeen ekarpen kutsatzaileak ekiditeko asmoz, hareak kentzeko kutxeta bat eta koipeak bereizteko kutxeta bat jarriko dira. Araztegiko efluentea zein euri-ur horiek, kutxeta horietatik pasa ondoren, atxikipeneko baltsa batera isuriko dira, iragazki berde moduan, Malluki errekaren ibilguan, Butroe ibaiaren urekin bat egin aurretik.

Edozein modutan, urak ur-ibilgura isurtzeko baldintzak arroko erakundeak erabakitzen duen moduan egingo dira.

2.c.3.– Ibaien ekosisteman ondorio kaltegarririk ez eragiteko neurriak.

Aplika daitezkeen prozeduren esparruan uren arloko organo eskudunak egoera honetan ezarriko dituen baldintzez gain, honako neurri babesleak eta zuzentzaileak ere hartu beharko dira:

2.c.3.1.– Ur-ibilguen ertzetan egingo diren jarduerak, betiere, bat etorriko dira EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean xedatutakoarekin.

2.c.3.2.– Malluki errekaren bideratzea Errigoitiko Udalak Ingurumen Sailburuordetzari bidalitako dokumentazioaren arabera egingo da, eta bereziki «Proyecto de acondicionamiento del arroyo Malluki en el ámbito del sector industrial y ampliación del puente» agirian eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean bildutako Malluki errekaren bideratzeari aplikatzekoak zaizkion neurri zuzentzaileetan xedatutakoaren arabera.

Ibai-bazterretan landare berriak landatuko dira, eta, horretarako, ibai-ertzetako espezie autoktonoak erabiliko dira, hain zuzen, ibilguari gerizpea emateko modukoak direnak.

Arreta berezia jarriko da ibai-ohe irregularra osatzeko, hori lagungarri izango baita udaldian ur-emaria pilatzeko eta ohe horretan uretako faunarentzako mikrohabitatak sortzeko. Horretarako, ura pausatzeko eta pilatzeko urmaelak eta gune aldapatsuak edo korronte-mugimenduak dituztenak tartekatuko dira.

Malluki errekaren eta ur-ibilgu berriaren arteko lotura, betiere, proiektatu den bideratzea amaitu ondoren egingo da.

2.c.3.3.– Proiektuak ukitzen dituen errekek gurutzatzen duten bide-zortasunaren aldeak ahalik eta baldintza naturalenetan gelditu behar du, bere eginkizuna oztopatzen duen betelan, itxitura edo bestelako okupaziorik gabe.

2.c.3.4.– Makineria Malluki errekaren ibilgutik pasatzeko, horretarako bereziki diseinatutako sistema batzuk erabiliko dira. Makineria ez inola ere Malluki errekaren ibilgutik ibiliko, eta ez da baimenduko makineria Butroe ibaiaren ibilgutik igarotzea.

2.c.4.– Airearen kutsadura eta hauts-isuriak saihesteko neurriak.

2.c.4.1.– Obrak dirauen bitartean, ibilgailuak igaro ondoko garbiketa-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai obrek ukitutako ingurunean, bai obretara sartzeko guneetan. Aldi baterako hutsik dauden pistak eta azalerak ureztatzeko sistema eduki beharko da.

2.c.4.2.– Obra-guneko irteeran ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dituzte, solidoak biltzeko sistema bati kateatuta.

Aipatutako elementuen ezaugarriak, kokapen zehatza eta neurriak ebazpen honetako 2.c.12 puntuan zehaztutako dokumentazioan adieraziko da.

2.c.5.– Soinuek eta bibrazioek eragindako eragina gutxitzeko neurriak.

2.c.5.1.– Eraikitze-fasean, beharrezkotzat jotzen diren jarraibide egokiak aplikatuko dira, obra-makinen mantentze-lanei eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

2.c.5.2.– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta igorpen akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen soinu-igorpenei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokie, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-igorpenak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

2.c.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

2.c.6.1.– Obrek iraun bitartean sortutako hondakinak Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira.

Hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, baimendutako hondakinen balioztatzaile batengana eraman behar dira.

Hondakinak deuseztatzera bidali ahal izango dira, baldin eta aldez aurretik horiek balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideraezina dela frogatzen bada soilik.

2.c.6.2.– Eraikuntza– eta eraiste-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera kudeatuko dira eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak.

2.c.6.3.– Zabortegira bidali beharreko hondakinak, hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea eta betegarriak egikaritzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera ere kudeatuko dira. Hondakin horiek Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz karakterizatu beharko dira. Erabaki horren bidez hondakinak zabortegietan hartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dira, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluarekin eta II. eranskinarekin bat etorriz.

Jardueraren soberakinak bideratu lekizkiekeen betegarriek otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutako baldintzak bete behar dituzte.

Lur-beteketetan eta lurzorua egokitzeko lanetarako, kutsatzaile-edukia A ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako baloreen azpitik duten materialak bakarrik baimenduko dira. Adierazle horiek lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinean daude jasota.

2.c.6.4.– Lanak amaitzen direnean, sustatzaileak lur-mugimenduen gaineko balioespen xehatua bidali beharko du Ingurumen Sailburuordetzara. Balantze hori, lanak amaitzen direnetik 2 hilabete igaro baino lehen, Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da.

2.c.6.5.– Hondakin arriskutsuentzako ontzietan uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko

oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa aipatutako uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa ere izango da.

2.c.6.6.– Olio erabilia kudatzeko honakoak hartuko dira kontuan: industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta olio erabiliaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretua.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, erabilitako olioa andel estankoetan bilduko da estalitako biltegi batean; andelok etiketatuta egon eta azpila edo atxikipen-sistemaren bat eduki beharko dute. Zola iragazgaitz gainean egon beharko dute, edozein ihes edo isuriri aurre egiteko prestatuta, elementu nagusia hautsiko balitz ere.

2.c.6.7.– Araudi hau betetzea errazte aldera, zeregin askotan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatuko dira. Sistema horiek zeregin bakoitzaren arduradunek kudeatuko dituzte, eta haiek berak arduratuko dira beharginek behar bezala betearazteaz. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik erregai eta produktuak biltegiratzean eta makineria mantentzeko lanak egitean, ezta hondakinik erreko ere.

Aurrekoa kontuan izanik, ebazpen honetako 2.c.1.2 idatzi-zatian aipatzen diren espazioetan alde berezi bat egokituko da, instalazio estaliekin. Horietan, hondakin arriskutsuak bilduko dira aldi baterako: olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak, e.a. Gainera, horietatik bereiztuta egon behar diren edukiontziak jarriko dira hondakin inerteentzat. Halaber, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak jarriko dira obran (bidoiak, e.a.). Hondakinok euren izaeraren arabera bereiztuko dira, betiere aipatutako puntu garbian aldi batez biltegiratu ondoren.

2.c.6.8.– Obretan sortutako hondakinen jarraipenari buruzko txostena egingo da, eta hondakin horien kontrolerako, jarraipenerako eta egokitzapenerako agiriak erantsiko dituzte gainera, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

2.c.7.– Lur-betetzeak egiteko materialak erabiltzeko baldintzak.

Urbanizazioko lubetak eta lur-beteketak egiteko materialei dagokienez, honako hauek bakarrik erabili ahal izango dira:

● Obra honetan hondeatutako materialak.

● Beste obra batzuetan hondeatutako materialak, betiere, gai kutsatzaileen edukia aipatutako otsailaren 4ko 1/2005 Legearen, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoaren, I. eranskinean jasota dauden EBA-A ebaluazioko adierazleen balioa baino baxuagoarekin.

● Agregakin naturalak.

2.c.8.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean xedatutakoa kaltetu gabe, obran zehar aztarna arkeologikoren bat dakarren aurkikuntzarik eginez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari horren berri emango zaio berehala, eta hark adieraziko du zein neurri hartu behar den.

2.c.9.– Obrak lehengoratu eta integratzeko neurri zuzentzaileak.

Obrek ukitutako eremuen lehengoratzea, betiere, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio-prozesuan sustatzaileak emandako dokumentazioan adierazitakoaren arabera egingo da.

Obra kontratatzeko baldintza-agiriak eta aurrekontuek aipatutako agirian aurrez ikusitako baldintza teknikoak eta aurrekontu-partidak jaso beharko dituzte, proposatutako jarduerak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Aurrekoari kalterik egin gabe, neurri babesle eta zuzentzaile gehigarri hauek ere hartuko dira:

– Obrak eragindako eremu guztietan egingo dira obraren paisaia-integraziorako lanak, baita ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean agertu ez arren proiektuaren ondorioz kaltetu direnak ere. Ingurumen-lehengoratzean sartuko dira lurraren berroneratze geomorfologikoa eta edafikoa, baita landare-azalera izan dezaketen guneen landare-berritzea ere.

– Lur-mugimenduak egiten diren bitartean, lur begetala modu askotan kendu, pilatu eta zabalduko da, ondoren eragindako espazioak leheneratzeko eta landareberritzea errazteko.

– Lur gorriak higa ez daitezen, obrek eragindako eremuak lehengoratzeko jarduerak, ahal dela, obrak egiten diren aldi berean egingo dira, obrek aurrera egiten duten heinean birmoldatzeko eta landare-berritzeko lanak egin daitezen.

– Landare-berritzeak, bertako espezieak sartuta, landaretza-masa trinkoak eta jarraituak ezartzeko aukera eman behar du; habitat naturalak sortu behar dira, eta, ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredi naturalarekin lotu.

– Robinia pseudoacacia, Cortaderia selloana edo beste landare inbaditzaileak ez zabaltzeko ekintzak burutuko dira. Alde horretatik, landare-estalkia leheneratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da, espezie horiekin kutsatutako lurrak ez erabiltzeko.

– Ingurua leheneratu ondorengo bi urtean, mantentze-lanak egingo dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak landareberritu.

Neurri horiek proiektu honen eremutik kanpo aurreikusi litezkeen jardueretan ere aplikatu beharko dira.

2.c.10.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Lanak amaitu ondoren garbiketa-kanpaina zorrotza egingo da, proiektuaren eremutik obra-hondar guztiak garbitzeko. Eraispenetatik, enkofratuak kentzetik, eta oro har, garbitze-lanetan sortutako hondakinak lanen eremutik kendu eta ebazpen honetako 2.c.6 idatzi-zatian xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

2.c.11.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta horren bermeak dirauen arte, ingurumen gaietan, kultura-ondarearen zaingoan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan, ondo jantzitako aholkularitza eduki beharko du obraren zuzendaritzak, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlaneko erabakien arabera. Baldintza-agirian obraren zuzendaritzari izendatutako egitekoak direla eta aipatutako gaiei buruz obraren zuzendaritzak erabakiak hartu aurretik aholkularitza horretako espezialistek egindako txostena hartu beharko dute gogoan.

2.c.12.– Lan-programaren diseinua.

Lanak hasi aurretik kontratatzaileak jarraian datozen idatzi-zatietan azaltzen diren gaiei buruzko jarduera-proposamen zehaztua egin beharko du. Proposamen horiek lanen gauzatze-programarekin batera jasoko dira eta lanen zuzendariak berariaz onartu beharko ditu, ebazpen honetako 2.c.11 idatzi-zatian aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren. Honakoak dira agiriok:

● Obrarako sarbideen eta okupazio-eremuen kokagunearen eta ezaugarrien xehetasuna, kontratistak egina, ebazpen honetako 2.c.1.2 idatz-zatian jasotakoaren arabera.

● Zuzeneko okupazioa egingo ez den aldeetan dauden ingurumen-intereseko eremuak balizatzeko plana, ebazpen honetako 2.c.1.3 idatz-zatian jasotakoaren arabera.

● Ebazpen honetako 2.c.2.2 idatz-zatian urak bideratzeko eta sedimentuei eusteko aurreikusitako sare eta sistemen xehetasunak.

● 2.c.4.2 idatz-zatian aurreikusitako kamioien gurpilak garbitzeko gailuen ezaugarriak eta kokapena.

● Obran sortuko diren eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kasuan dauden betebeharrak nola beteko diren islatzen duen plana, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

2.c.13.– Egitasmoan akustikaren kalitatean dauden helburuak

2.c.13.1.– Errigoitiko Udaleko «Soinu eta zarataren kutsadura dela eta udalak hartuko duen jarrera arautzen duen ordenantzak» ezartzen duena alde batera utzi gabe, antolamendu-eremuaren kanpoko inguruan akustikaren kalitatean izango diren helburuak bat etorriko dira Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. artikuluarekin, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.

2.D.– Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten denaren arabera egingo da (lekuak, parametroak eta neurketen maiztasuna). Gainera, ondoren zehazten diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

Programa hori obra kontratatzeko baldintza-agirietan sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

2.d.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita neurri zuzentzaileak eta babesleak noraino bete diren jasotzeko ere. Erregistro hori Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egin beharko da, eta, obrak amaitzen direnean, nolanahi ere, Sailburuordetzara bidali beharko da. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Aldaketa guztiak, gainera, ingurumenean eragin dezaketen kaltearen ikuspegitik justifikatu behar dira.

2.d.2.– Obraren okupazio-mugen kontrola.

Egindako okupazioa proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela egiaztatuko da; obrek ez dute aurrez ikusitako azalera baino handiagoa izango.

2.d.3.– Uren kalitatearen kontrola.

2.d.3.1.– Oro har, lanean irekitako zuloetatik ingurumen urtarrera isurketak egin daitezkeenean, 2.c.11 idatzi-zatian aurreikusten diren ingurumeneko aholkularitzak urak isuri aurretik ur horiek bideratu, drainatu eta eusteko gailuak ondo dabiltzala egiaztatuko dute astean behin; euri-aldietan ibaira edo kolektorera finik isuri ote den ere aztertuko dute.

2.d.3.2.– 2.c.2.2. puntuan aipatzen diren dekantazioko gailuetatik datozen isurketa-urak, betiere, ur horiek isuri aurretik analizatuko dira. Hilero analisiak egingo dira, parametro hauek neurtzeko: emaria, konduktibitatea, pHa, solido esekiak, eta olio eta koipeak.

2.d.3.4.– Malluki errekako eta Butroe ibaiko parametro fisiko-kimikoen kontrola ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean aurreikusitakoaren arabera egingo da.

Horrez gain, obrak egin eta lehenengo bi urteetan, Malluki errekaren kalitate biotikoaren kontrolak egingo dira, uren egoera ekologikoa aztertzeko. Lehenengo urtean, sei hilabetean behin egingo dira, udaberrian eta agorraldian, eta bigarrenean, berriz, urte-bukaeran.

Sustatzaileak kontrol-kanpainak egiteko proposamen zehatza aurkeztuko dio Ingurumen Sailburuordetzari. Proposamen horren zehaztapenak kontuan izan beharko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauren (Uraren Esparru Zuzentaraua), uren politikaren eremuan jarduteko komunitate esparru bat ezarri zuenaren, V. eranskinean ezarritakoa.

Proposamena ebazpen honen 2.d.5 idatzi-zatiak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari erantsiko zaio.

2.d.4.– Lehenetatzearen arrakasta kontrolatzea.

Bermearen aldian, urbanizazio-proiektuak ukitutako gainazalen lehengoratzeak izan duen arrakastari aldizkako jarraipena egingo zaio, eta, berariaz, baita proiektuak ukitutako Malluki errekaren bazterretan eginiko landatze berriari ere. Gainerako neurri zuzentzaileek behar bezala funtzionatzen dutela ere egiaztatuko da.

Lehenetatzearen arrakastaren jarraipena neurri horiek proiektu honen eremutik kanpo aurreikusi litezkeen jardueretan ere egin beharko da.

2.d.5.– Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak Ingurumena Zaintzeko Programaren testu bategina landu beharko du ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean, eta ebazpen honetan proposatu diren betebehar guztiak bilduko ditu.

Programa horretan kontrolatuko diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira; horrez gain, laginketarako eta analisirako metodologia, kontrolerako puntuen kokapenari buruzko kartografia xehatua, haien maiztasuna eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak ere jasoko dira.

2.d.6.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenean, emaitzen analisia jasoko da, epe horretan emandako gertakari nagusiak, gertakarien arrazoiak eta konponbideak bereziki aipatuta.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta Herri Administrazioen ikuskaritza zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, ingurumen-organoak neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldaraz ditzake. Hori guztia, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta, edo ingurumenarekiko eragina saihesteko ezarri diren neurri babesle, zuzentzaile zein osabidezkoak gutxiegizkoak direla egiaztatzen denean.

2.F.– Ebazpen honek aurreko idatzi-zatietan ezarritakori kalterik egin gabe, proiekturen sustatzaileak jarraian aipatutako agiriak helaraziko dizkio ingurumen-organo honi, espedientean txertatzeko.

2.f.1.– Obrak hasi baino lehen, ebazpen honetako 2.d.5 idatzi-zatian aurreikusitako ingurumena zaintzeko programako agiri bategina.

2.f.2.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epean baino lehen, hondeaketa soberakoak eta hondakinen jarraipenaren txostenak, 2.c.6.4 eta 2.c.6.8 idatzi-zatietan adierazitakoaren arabera.

2.f.3.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epean baino lehen, obrak garatu bitartean sortutako gorabeheren erregistroa, neurri babesleak eta zuzentzaileak zein neurritaraino bete diren jasoko duena, ebazpen honen 2.d.1 idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera.

2.f.4.– Urtero, obrak hasten direnetik, ebazpen honetako 2.d.6 idatzi-zatian aurreikusitako ingurumena zaintzeko programari buruzko dokumentua.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.8 artikuluaren arabera, bi urteko epea ezartzea proiektua egikaritzen hasteko, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik. Epe hori proiektuari hasiera eman gabe bukatzen bada, sustatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo aginpidedunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

4.– Proiektuek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzko testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

5.– Ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 18a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.